



2023/24 GABONETAKO BALKOI, LEIHO ETA FATXADEN I. LEHIAKETA

LEHIAKETAREN OINARRIAK:

LEHENENGOA.

Debako herritar guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

Bizilekua herrian duten pertsonak. Parte-hartzaileek askatasun osoa izango dute balkoiak, leihoak eta fatxadak apaintzeko teknika eta estiloari dagokienez, betiere dekorazioak oinezkoentzat inolako arriskurik ez badakar.

BIGARRENA.

Izen-ematea doakoa da eta 2023ko abenduaren 1etik 20ra izango da. Eskabideak bi bidetatik onartuko dira:

1. Online, formulario honen bitartez: labur.eus/Gabonetakolehiaketa23
2. Turismo bulegora joanez (10:00etatik 14: 00etara) edo 943192452 telefonora deituz.

Turismo bulegoan izena ematen baduzu, honako hau adierazi beharko duzu:

1. Izen-abizenak
2. Inskribatu nahi duzun etxearen helbidea
3. Adierazi zer modalitatetan parte hartu nahi duzun: balkoia, leihoa edo fatxada.
4. Harremanetarako telefonoa + helbide elektronikoa.

turismoa@deba.eus helbidera bidali beharko duzu egindako dekorazioaren argazki bat edo batzuk.

HIRUGARRENA.

Balkoien, fatxaden eta leihoen dekorazioak lotura zuzena izan behar du Gabonetako motiboekin. Apainduta eta ikusgai egon beharko dute, gutxienez 2023ko abenduaren 20tik 2024ko urtarrilaren 8ra arte.



LAUGARRENA.

Erakusketa-aldian, dekorazioa edo/eta argiztapena osatzen duten materialek akatsen bat izanez gero, ordeztu edo kendu egin beharko dira, eta dekorazioa jarri duen partikularren erantzukizuna izango da.

BOSGARRENA.

2023/2024 GABONETAKO BALKOI, LEIHO ETA FATXADEN I. LEHIAKETA honetako saridunak hautatzeko epaimahaiak honako puntu hauek baloratuko ditu funtsean:

- Diseinua eta originaltasuna.
- Birziklatutako elementuak erabiltzea.
- Herri-tradizioa.

Epaimahaia 2024ko urtarrilaren 4an bilduko da udaletxean, parte-hartze aldian zehar fatxadak, balkoiak eta leihoak bisitatu ondoren eta jasotako argazkiak uneoro gogoan izan ondoren. Une horretan erabakiko dira irabazleak, eta 2024ko urtarrilaren 5ean emango da erabakiaren berri.

SEIGARRENA.

Epaimahaiak 200 €-ko lehen saria, 150 €-ko bigarren saria, 100 €-ko hirugarren saria eta 50 €-ko laugarren saria emango ditu.

Lehiaketa egin ahal izateko, gutxienez 5 balkoi, fatxada edo leihok parte hartu beharko dute.

ZAZPIGARRENA.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta tokiko komunikabideetan argitaratuko da. Gainera, irabazleei telefonoz jakinaraziko zaie.

Sariak emateko ekitaldia 2024ko urtarrilaren 5ean egingo da, eta Errege Magoek emango dituzte.

ZORTZIGARRENA.

Izena emate hutsak esan nahi du parte-hartzaileek 2023/24 GABONETAKO BALKOI, LEIHO ETA FATXADEN I. LEHIAKETAKO oinarri hauek eta epaimahaiaren erabakia onartzen dituztela.